


Urrea balio duen urdina



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Erroma, 1501. Michelangelo Buonarroti (1475-1564) artistak hiritik alde egin zuen Florentziara itzultzeko eta han utzi zuen, bukatu gabe, *Ehorzketa santua* margolana. Litekeena da hiriz aldatzeak berak eragin izana etena, baina lan bukatugabeari begiratu bat emanda nahiko nabarmena da kolore bat falta duela: urdina. Garai hartako artistentzat kolorerik preziatuena –eta garestiena– itsas urdina zen, eta margolan erlijiosoetan elementu bereziak koloreztatzeke erabiltzen zuten, nagusiki Jesukristoren eta Ama Birjinaren jantzietarako. Horregatik, hipotesi zabalduenak dio Michelangelo gazteak ez zuela itsas urdina ordaintzeko dirurik, baina ez zuela urdin merkeagorik erabili nahi eta horregatik utzi zuela margolana bukatu gabe.

Rafael (1483-1520) margolariak irtenbide merkeagoa erabiltzen zuen: oinarritzko geruza urdinak azurita arrunt merkeagoaz margotzen zituen eta itsas urdina azken geruza eta ukituetan xahutzen zuen soilik. Baina Michelangelok eta beste artista batzuek ez zuten halako neurririk hartu nahi eta, esaterako Jan Vermeer (1632-1675) herbeheretarrak familia osoa zorpetu zuen behin itsas urdina eskuratzeko. Baziren itsas urdina isilpean anil ohikoagoaz ordezkatzeko ahalegindu ziren



MICHELANGELOREN EHORZKETA SANTUA BUKATU GABEA.

artistak ere, baina engainua azaleratzeak margolariaren izen ona galtzea zekarren.

Itsas urdina ez zetorren itsasotik, egungo Afganistango Sar-i Sang meatzetik baizik. XVIII. mendea bitartean, huraxe izan zen lapis lazulia, itsas urdinaren osagai nagusia, lortzeko iturri bakarra. Lehengaiaren urritasunak produktua garestitzen zuen, baina baita pigmentua lortzeko prozesu luze eta nekezak ere. Lapis lazulia xehe-xehe birrintzen zuten hauts fina lortu arte; hautsa argizari urtuarekin, olioekin eta erretxinarekin nahasten zen; bukatzeke, nahastea lixiba disoluzio batez oratuta lortzen zen produktua. Pigmentua oso kantitate txikitik ekoizten zen eta, ondorioz, itsas urdina urrea baino garestiagoa zen.

1824an Frantziako Société d'Encouragement-ek 6.000 liberako ordainsaria eskaini zuen itsas urdina ordezkatzeko pigmentu sintetikoa asmatzen zue-narentzat. Jean-Baptiste Guimet kimikari frantziarrak eta Christian Gmelin ikerlari alemaniarrek aurkeztu zituzten beren margo sintetikoak eta, azkenean, frantziarrari eman zioten saria. "Frantziako" itsas urdina jaio zen eta "betiko" itsas urdinarenak egin zuen. Baina zenbaitentzat ez zen sekula berdina izango. Itsas urdin naturala mineralez josita dago: kaltzita, pirita, mika... Metakin horien eraginez, argia modu anitzetan errefraktatzen da eta, hala, pintzelkadak beti dira desberdinak, beti bakarrak. ●



Maien urdinak ez du misteriorik

Maientzat kolore urdina garrantzitsua zen; besteak beste, sakrifizioarekin lotuta zegoen, eta biktimak goitik behera urdinez estaltzen zituzten hil baino lehen. Maien urdin berezi horren jatorria argitu gabeko misterioa izan da mende luzez mendealdekoentzat, beharbada itsas urdinarekiko obsesioak elikatuta. Baina 2010ean Dean Arnold antropologoak maiek urdina lortzeko erabiltzen zu-

ten teknika aurkitu zuen: indigoa eta paligorskita nahasten zituzten. 2017ko ikerlan batek argitu zuen paligorskita nondik ateratzen zuten: Chichen Itzako urdina Salacuim meatzetik lortzen zuten eta Palenquekoa, aldiz, Ticul meatzetik. Meatzeak hirietatik gertu zeuden eta ez zen teknologia aurreraturik behar minerala erauzteko. Hala, urdin maia eder hura erraz eta merke ekoizten zuten. ●